

Bitcoin

Duela aste gutxi *wannacry* izeneko birusak kaosa hedatu zuen Britainia Handiko ospitaleetan, Espainiako Estatuko telefonian eta Errusiako Barne Ministerioan. Birus gaizkileak artxiboak enkriptatu egin zituen eta egileek ordaina eskatu zuten artxibo horiek itzultzeagatik. Baina, erreskatearen ordaina gauzatzeko ez zuten txanpon arrunta edo urrea eskatu baizik eta *bitcoina*. Txanpon hau lehendik ere erabili izan da negozio ilunen ordaina gauzatzeko garaian. Bitcoina guztiz desentralizatutako ordainketa sistema bat da eta bere trukeak bankuen edo estatu bermerik gabe egiten dira. Bere jatorriaz ezer gutxi dakigu, programatzailer batek –edo batzuek–2009an asmatu eta bideratu zuela soilik.

Txanpon birtuala da bitcoina, protokolo informatiko zorrotza betetzen baitu 2008. urtetik. Izan ere, binakako sistema erabiltzen du on-line ordainketak egiteko, konfiantzazko hirugarren pertsona edo instituzio baten tutoretzarik gabe. Ohiko diru sisteman banketxeek elkartruke guztiak kontrolatzen dituzte. Bitcoin sisteman erabiltzaileak dira berdinen arteko edo P2P sarean argitaratzen diren elkartrukeak balioztatzen dituztenak eta era guztiz anonimoan egiten dira. Beraz, ez dago bitartekorik, ezta ere txanpon hori jaulkitzen duen instituziorik, protokoloak aurreikusten baitu bitcoinen sorrera. Bitcoinak interneteko plataformak batean erosi daitezke dibisa ofizial ugariaren truke, eskaintzak eta eskariak finkatzen duten tasan. Hots, trukagarria eta diru ofizialen lehiakidea da bitcoina. Azken buruan, txanpon “librea” da, inork ezin baitu bitcoina kontrolatu, monopolio publikoa den diru arrunta edo bankuek sortutako diru estrukturala ez bezala.

Ezaugarri hauek direla-eta, edonolako esku hartze publikoaren aurka-



Mikel Zurbano
EHU-KO IRAKASLEA

Txanpon birtuala da bitcoina, protokolo informatiko zorrotza betetzen baitu 2008. urtetik. Izan ere, binakako sistema erabiltzen du on-line ordainketak egiteko, konfiantzazko hirugarren pertsona edo instituzio baten tutoretzarik gabe. Ohiko diru sisteman banketxeek elkartruke guztiak kontrolatzen dituzte. Bitcoin sisteman erabiltzaileak dira berdinen arteko edo P2P sarean argitaratzen diren elkartrukeak balioztatzen dituztenak eta era guztiz anonimoan egiten dira

koak diren ekonomialari ultraliberalek bitcoinarekin alderatu jarrera dute. Hauen ustez bitcoinarekin hobariak ugariak dira: unibertsalak da, edonon erabili daitezke, bitartekorik gabekoa da, elkartruke kostuak minimotzen ditu, ordainketa egiterakoan anonimotasuna gordetzen du eta, beraz, kapitalen eta zergen kontrola saihesten ditu.

Baina, txanpon birtual honen arriskua bistakoa da. Bitcoinarekin sareak ez du inolako arau edo erregulazio sistemarik horrela erabili dutelako berariaz, lege edo arau jurisdikziorik gabeko sare gisa alegia. Erregulaziorako autoritatetik ezean jendeak sarbide anonimoa du sarean eta bertan mugarik eta kontrolik gabe dihardu. Horrenbestez, bitcoinarekin erabileraren sistema ondo ulertzeko eta bere arriskuak jasateko ahalmena duten teknologoentzako da egokia. Pirateria kasuetan bezala, elkartruke sare hau maiz izan da ziber-erasoen biktima eta erregulaziorik ezean kaltetutako erabiltzaileak erantzuteko ahalmenik gabe aurkitzen da. Are gehiago, bere balio oso hegakorra da, txanpon ofizialekiko gorabehera indartsuak izan ohi ditu bere historia laburrean.

Gaur egun bitcoina, ordainketarako bitartekoa baino gehiago espekulaziorako aktiboa da, arrisku handiko aktiboa. Haatik, bere kopuruak gora egin du nabarmen urteotan, bost mila milioiko dolarreko kapitala osatzeraino. Ekonomia digitala bultzatzen ari da erakunde eta enpresa erraldoi ugariak bitcoina onartzen baitute gaur egun. Haatik, bere hedapenak eta balioztatzeak ez du urreak bezala oinarri fisikorik edo diru ofizialek bezala herrialdearen BPGrik atzean. Zerk sostengatzen du bada? Bere balioa gorakorra izango delako ustea, eta hau da, hain zuzen ere, ohiko burbuilaren definizioa. ■